

COVID-19a dela eta, gizartea gogoratzeko eta aintzatesteko lorategi bat jarriko da Nafarroako Ospitale Gunean

Webgune batekin osatu eta toki-erakundeei ere zabalduko zaien gune horrek omenezko ekitaldi instituzionala hartuko du irailaren amaieran

Ostirala, 2020ko Uztailaren 17a

COVID-19k eragindako krisiaren aurrean, Nafarroako gizartea, hildako pertsonak eta funtsezko sektoreak gogoratzeko, omentzeko eta aitortzeko proiektua jarriko du martxan Gobernuak.

Herritarrekiko Harremanen eta Osasun Departamentuek koordinatuta, hiru arlo jorratuko ditu. Batetik, lorategi bat diseinatu eta jarriko da Nafarroako Ospitale Gunean, bizitakoa gogoratzeko, eskertzeko eta hortik ikasteko espazio gisa.

Horrez gain, espazio fisikoa gune birtual batekin osatuko da, eta, bertan, parte-hartzea eta horrekin loturiko jarduerak sustatuko dira. Azkenik, proiektua Nafarroako Toki Erakundeetara eraman ahal izango da, horrela nahi duten herriek beren espazio propioa ere jar dezaten.

Horrela adierazi dute gaur Ana Ollo eta Santos Indurain kontseilariak nahiz Mikel Baztanek, ideia izan duen boluntario-taldeko kideak, proiektua osatuko duten elementuetako batzuk zehaztu dituzten prentsurrekoan.

Galdutakoa, eskertutakoa eta ikasitakoa

Mikel Baztanen hitzetan, lorategiak “leku fisikoa eta birtuala izan nahi du, pertsonak, taldeak eta erakundeak hiru ardatz horien inguruan egindako mezuak eta proposamenak jasotze aldera; eskola- eta talde-bisitak hartuko ditu, gizartearen edozein arloko proposamenak eta proiektuak, eta, jakina, lasaitasunerako, oroitzapenerako eta hausnarketarako lekua izango da.

Ollo kontseilariak honela nabarmendu du: “dimentsio hirukoitz hori dela-eta, hemen aurkezten den proiektua oroitzapenaren espazio fisikotik edo ekitaldi instituzionaletik haratago joango da”. Era horretan, ondorengoa gehitu du: “Herritarrekiko Harremanen Departamentuak, gainerako erakundeekin batera, eta baita gizarte zibilarekin ere, dimentsio hirukoitz honen inguruko proiektuak jorratuko ditu, krisiak gizarte justuago, etikoago eta demokratikoago gisa 'berpizteko' aukera eman diezagun, krisi honek ekarri dizkigun balio positiboak indartuz”.

“Nafarroako Gobernuan jaso genuen ekimen hau”, jarraitu du kontseilariak, “krisitik irteteko moduaren

eredurik onena da. Gizarte zibilarekin eta Gobernuko Departamentuekin batera egiteko lan bat da, hemen gaur horietako biren parte-hartzearekin erakusten den moduan".

Kontseilariak, halaber, ideiaren beste hiru sustatzaileak aipatu nahi izan ditu, Mikel Baztanez gain, eta eskerrik beroena eman nahi izan die. Rubén Gutiérrez, Javier Armentia eta Javier Góngorak egindako ekarpen baliotsuak gizartearen aberastasuna erakusten du, eta gizarteari eskerrak eman nahi dizkiot krisi honetan sortu diren ekimen sozial, banako eta kolektibo ugariengatik.

Bestalde, Santos Indurainek honela berretsi du: "izaten ari garen agerraldiak COVID-19aren aurkako borrokan itxaropen bilakatzea gizarte osoaren lana da eta gomendutako neurriak beteaz egin beharrekoa". Horrez gain, ondorengoa gehitu du: "lorategia Nafarroako Ospitale Gunean sartzeak eta horrek guztiak dakarrenak esanahi handia du; izan ere, alde batetik, pandemiak eragindako min guztia zuzenean bizi izan den lekuan kokatuko da, eta, bestetik, gaixotasun horrek gure gizarte-ehunean utzi dituen zauriak orbaintzeko balio dezake".

Ekitaldi instituzionala

Era berean, Nafarroako Gobernuak ekitaldi instituzional bat antolatzen ari da, hildako pertsonak eta haien senitartekoak, krisian zehar lan egin duten sektore profesionalak eta gizartea oro har omentzeko, oroitzeko eta eskertzeko, krisiaren aurrean emandako erantzunarengatik.

Ekitaldia irailean egingo da, eguna oraindik zehazteko badago ere. Bertan, Nafarroako Gobernuko Lehendakari Maria Chiviterekin batera parte hartuko dute Nafarroako Parlamentuko lehendakariak, Unai Hualdek; Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioko lehendakariak, Juan Carlos Castillok; eta funtsezko sektore ezberdinetako ordezkariak nahiz senitartekoak.

COVID-19a dela eta, gizartea gogoratzeko eta aintzatesteko lorategi bat jarriko da Nafarroako Ospitale Gunean